

Euskal herritar askorentzat, Franco diktadorearen heriotza albiste pozgarria izan zen. Frankismoa diktadorearekin batera lurperatuko zutela uste zuten gehienek. 30 urteren buruan uste hori gauzatu ote den ala ez, ñabarduraz beteriko erantzunak bil daitezke. ● Testua: A. Iban



Francisco Franco Bahamonde militar eta diktadorea, hil berritan, Madrilgo El Pardo jauregian. EFE

Zautza hor eta zaude

Hor zautza ene Jeneral
hemen nauzu ene Jeneral
Presente ene Jeneral
zutik ene Jeneral
baina hor zautza ene Jeneral
zapaldu zenuen lurrak zapaldua
Soldadu honek ez daki zertarako
[bizi den

zuretzat bizi baitzen
Nola joan zatsaizkigu
nola utzi gaitzazu
etorkizun kolokaren mende?
Zugatik egin da dena
eta zu gabe ez da ezer egin
baina zureak ere egin du
eta denonak egin ez dezan
zautza hor eta har atsedan merezia
iraganaren zerraldoi eta
[etokizunaren sokaboi horrek
saimotzen harakin eta muskerren
[artzain horrek
erosioaren harrisi eta
[fosilmentuaren gaztelu horrek
itomenaren zirimol eta
[nazkamenaren bemol horrek
zautza hor eta zaude
sekulorun sekularen sekularioan
Jeneralun Jeneralen Jeneraltasun
[hori.

X

abier Amurizak idatzi zituen ondoko lerroak. Kartzelan egona eta Poliziaren jazarpena nozitutakoa bera ere, Franco hiltzean euskal herritar askok sentituta koa islatzen dute hitzok. Diktadoreak eskubide zibil eta kolektibo oro ia 40 urtez eduki zuelako hankapean.

Jazarpena ez zen Francorekin lurperatu, baina, eta frankismoaren egitura militar eta polizialetako buruek beren botere guneetan jarraitu zuten, uniforme eta izen ofizial aldaketa batzuk tarteko. Migue] Castells abokatuak *Euskadi guduan* liburuan (Ekin, 1987) emandako datuen arabera, 1976ko urtarrilaren 1etik 1981eko ekainaren 16ra bitartean, FOPEk (Espainiako Ordena Publikoko Indarrak) 74 pertsona hil zituzten Euskal Herriko kaleetan, eta beste 39 komando parapolizialek. Prentsatik atera zituen datuok Castellsek. 1977ko ekainaren 15etik 1981eko ekainaren 16ra bitartean, 973 pertsona zauritu zituzten FOPEk eta inkontrolatuak, eta 743tik gora

batzar eta manifestazio baketsuri oldartu zitzaizkion. Tortura eta tratu txarren salaketak ere ez ziren urritu. 1980ko maiatzaren 27an, Gipuzkoako Diputazioak adierazi zuen: «[Gobernuak] Guztioak dakiguna ukatzen du: atxilotuekiko tortura ez dela desagerrarazi».

Franco hil zela entzutean sentitu zuena ondo gogoan dauka hainbat pertsonak. Handik aurrera ere gertatu ziren beste hainbat gauza:

Carlos Garaikoetxea

FRANCOREN OSTEKO
EAE KO LEHEN LEHENDAKARIA

«Hegoaldeko lau lurraldeentzako estatutuak lortzen saiatu ginen»

Francorekin diktadura beltz baten ezaugarria eta buruzagia hil ziren. Nahiz eta diktadura garaian jaio ginenok etorkizun berri baten aurrean geundela pentsatu, Franco oraindik bizirik zegoen Estatuko erakundeetan eta Espainia gidatzen zuten politikarien artean. Egiazki, zaila egiten zitzaigun sinestea haietako politikari batzuk —Suarez, adibidez— diktadura apurtzeko eta demokrazia ezartzeko gai izango zirenik. Hala ere, diktaduraren ezaugarri nagusia zenaren heriotzak itxaropen ugari ekarri zituen. Eta, egia esateko, trantsizioaren aldaketa, aurretik existi-

tzen ez ziren eskubide eta askatasunen onarpenarekin, nahiko garrantzitsua izan zen. Euskadi eta Kataluniaren eskubide nazionalak onartzea, berriz, zailago gertatu zen. Betiko espainiarren tabu jakobinoa... Euskadin premiazkoa zen botere politikoa berreskuratzea, nahiz eta mugatua izan, gure Herria krisialdi sakon batean murgildua zegoen eta: bai kultura, bai hizkuntza, bai ekonomia eta bai gizarte arloetan ere. Oinarriko industria hondoratzen ari zen eta Euskadin ordaintzen ziren zergen parte handiena Madrilan gelditzen zen, gure Herriak diru hori krisialdia gainditzeko behar zuenean. Estatutua aipatutako larrialdietarako konponbidea zen, eta lau lurraldeetan posible zela uste genuen. Gaurko PSOEek —orduan Nafarroan PSE zenak— Euskal Estatutu bat onartzen zuten. Horregatik, estatutu hori Nafarroan gehienek babes zezaten, euskal abertzale gehienek eta PSEko sozialisten arteko «itun autonomiko» bat izenpetu zuten. Zoritxarrez, ezker abertzaleko zati batek ez zuen parte hartu eta espainiar eskuindarrek irabazi zituzten lehenengo hauteskundeak. D' Hont legerari esker, eta euskal estatutuari uko egin zioten, nahiz eta abertzale sozialista aurkaritzak baino boto gutxiago izan. Euskadi hegoaldeko lau lurraldeentzako estatu-

tu bakar baten aukera, behar bada, gaur posible izango zen ezker abertzaleko zati horrek parte hartu izan balu. Errealismoa ere politikagintzan oso garrantzitsua da, eta ordurako ere lurraldeetan errealitateak eta erritmoak ezberdinak ziren.

Ugutx Robles Arangiz

EUSKALITZALEA

«Frankismoa bazter guztietan ikusten dut»

Haurra nintzenean, 40ko urteetan, bospasei bider entzun nuen Franco hil zela. Gure aita [Manu Robles-Arangiz abertzale eta sindikalista historikoa] etortzen zen esatera: «Badakizu berria? Franco hila dela!». Gero jakiten genuen ez zela hila. Gure etxean erbesteak eta diktadurak ezagutu ditugu, bai. Aitak argentinarra jo zuen 1924an, Primo de Riveraren diktadura garaian. Espainiako errepublika garaia heldutakoa, diputatu ateraz zen EAJrekin, eta, kolpea gertatu zenean, atzerriara jo zuen berriz. 1952an itzuli zen Bilbora, familia hartuta. 13 urte nituen Bilbora joan ginenean. Anaia eta biok, berriz, ihesean etorri ginen hona 1960an. Eta Franco benetan hil zenean, gauzak manera berezi batean konpondu zituzten, frankismoa ez hiltzeko. Eta demokrazia aire bat hartu nahi bada ere, nik frankismoa bazter guztietan ikusten dut. Frantziar baduz Le Pen, hainbat milioi pertsonaren botekin. Espainian Blas Piñar zegoen, eta haren aldekoak PPrekin joan dira, demokrazia itxura hartzeko. Franco hil ostean ez zen jazarpena bukatu. Inork ez zituen epaitu frankismoaren desmasiak, eta hor gelditu zen. Eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa, batuta eduki beharrean, begira nola dauzkagun orain...

Txaro Artega

EMAKUNDEKO LEHENDABIZIKO
BURUA, KAZETARIA

«Franco hil zenetik, ahal zena egin da»

Franco hiltzean oztopo handi bat hil zen. Euskal Herriaren askatasunerako eta edozeinen askatasunerako oztopo bat zen bera. Eta bagenekien gauzak oso lo-tuak geratzen zirela, bera hiltzeko ez zekarrela askatasuna, baina bagenekien hura hiltzea beharrezkoa zela gauzak aldatzeko. Orduetik, ahal zena egin dela uste dut. Aurretik ere hasita zeuden gauzak aldatzen; Herri Irratzen ikusi nuen hori. Gauza asko joan zen Francorekin, baina gure

(hurrengo orrialdean jarraitzen du)

(aurreko orrialdetik dator)


aitak beti esaten zuen geroko urteetan: «Eta non daude frankista haiek guztiak?». Eta begira non zeuden, gaur egungoari begiratu! Isilik baino gehiago, ezkurtuta zeuden, eta baliabide askorekin agertu dira berriz. Gu ere halaxe gaude, ordea. Gauza asko gertatu da, txarrerako eta onerako. Ahaztu egiten dugu, baina diktadura hura erregimen politia eta militarra zen. Hemen ezin zen mugitu ezer, ezin genuen ezer esan. Franco hil ostean ere, Herri Irratian egiten nuen saiora deitu zuen batek. «Gora Euskadi askatuta!» esan zuen, eta, hura zela eta, guztiok pasatu ginen Polizia exetik. Orditik aurrera, nire saioa hiru segundoko atzerapenarekin aieratzen zen, berriak mozteko aukera eduki nahi zutelako. Jende askok beldur izugarria zeukan Franco hila izanik ere, eta edukitzea zela.

Txillardegi

IDAZLEA, HIZKUNTZALARIA

«Espainiakeria gailendu da hura hil zenetik»

Orain dela 30 urteko egun hartan, Francisco Franco Bahamonde militarra hil zen bere 83 urteetan. 37 urtez Espainiako Estaturburu, Armadaburu eta goberneurburu autokratikoa izan ondoren, Diktadorea zen hil. Ondoko aste-etan hil zen, legez bederen, berak eraikitako Partidu bakarra, *El Movimiento* zeritzona. Nahiz Juan Carlos ondorengoak *Principios del Movimiento* delakoekiko errespetu osoa izango zuela plazarrean zin egin. Eta, ondoko urteetan, errepikatzea alfer-lana litzatekeen gorabeheratan barrena, 1978ko Konstituzioraino iritsi ginen. Geroztik 27 urte joan dira. Eta urte horietan inork somatuko ez zukeen fenomeno nabarmena gertatu da: Franco hiltzean, independentismotik autonomismora pasatu gara. Hein handi batez, 1975az geroztik Euskal Herri askatu, batu eta euskaldunaren projektua hil da. Nafarroa-*Vascongadas* egitura bikoitzean milaka euskal herritar kokatu dira profesionalki, bizi-modua bera egitura horren geroarekin hertsiki loturik. Diputatuak, senatariak, alkateak, zinegotziak, ertzainak, hamaika motatako funtzionarioak han eta hemen «kolokaturik», *statu quo* legalari eusteko beharra irentsi dute osotara. «Tinglado» autonomikoaren iraupena edozein «abentura ero»-ri gailendu zaio. Eta, Eli Gallastegik argioren aurrikusi zuenaren bidetik, urratsa besterik ez omen zena, oztzoharri nagusi bihurtu da, eta Euskal Herri Askaturako bidean traba nabarmen. «Normaltasunaren izenean, espainiakeria gailendu da. ETB2, adibidez, erdaldunak euskal mundura erakartzeko iskluru gisa sortu zen;



Francoren osteko urteak gogorak izan ziren. Argazkian, 1976ko martxoaren 3an indar armatuek Gasteizen hildako bost pertsonen aldeko elizkizunak.



Francoren aldekoak aurten, Madrilan, diktadoreari gorazarre egiten. EFE

baina egia kontrakoak da: ETB2 euskaldunak espagnolizatzeko tresna da. «Nazio» hitza desagertu egin da. Eta bekatu nagusiak gaur (18-98 makroprozesoen garbi ageri denez) abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna dira. Ohitu egin gara Euskal Herria hiru puskatan ikusten. Ez da dena beltza 30 urte horretan. Inondik ere ez. Baina prezioa izugarri garestia izan da: Euskal Herria askaturik eta euskaldundurik ikusteko projektua, utopia bihurtu da. Gure herriko eskualde eta giro askotan, gehiegitan, benetako Euskal Herria eraikitzeko projektua hil baita.

Eva Forest

IDAZLEA, EDITOREA

«30 urteotan, tortura ez da desagertu»

1974tik 1977ra egon nintzen kartzelan. Franco hil zenean preso nongoen. beraz. Eta handik irten nintzenean, komunista, sozialista, monarkikoak... elkarri eskua emanda aurkitu nuen. Francorekin, frankismoaren zati bat lurperatu zen, baina beste zati bat bizi-bizi

geratu zen. Tortura ez zen desagertu, adibidez. 1975eko azaroaren 20tik aurrera kartzelan egin nuen tartean ere, jendea tortura latzak pasata sartzen zuten preso. 30 urte hauetan ez da praktika hori desagertu, eta torturapean hildakoak ere badaude. Francoren garaiko militar, epaile eta politikari askok beren postuetan jarraitu zutela. Transizio bat egon zen eta, apurketa-rik egon ez zenez, demokraziarik ondoren izan dituen mugak aipatutako sektore horietatik sortu dira batez ere. Dena barkatu zitzaizen. Hainbeste hilketa, hainbeste jazarpen gauzatu zuten haietaz zitzaizen ezertxo ere eskatu. Ez zituzten epaitu. Francok hautatu zuen gaur egungo Espainiako estaturburua, gainera: Juan Carlos Borboikoa. Eta Franco hiltzean herrien autodeterminazio eskubidea gauzatea lortuko genuela uste genuen, baina oraindik ez dugu lortu, zorritzarrez. Gauza batzuk lortu dira, hala ere, eta Francoren garaiketa oraindik ez da berdinak, gure demokraziak murrizketak badituen arren.

Antton Karrera

BURGOSKO PROZESUAN EPAITUA,
EB-KO EUSKO LEGEBILTZARREKO
PARLAMENTARIA

«Dena barkatu zitzaizen»

Burgosko Prozesuan zigortua izan nintzen, eta Segoviako kartzelan nongoen Franco hil zenean. Nire ziegako leihotik kartzelako ataria ikus zitekeen, eta, diktadorea gaixo zegoela banekenez, egunero, leihora igo eta barrotei helduta begiratzen nuen, banderari trapu beltza noiz jarriko zioten. Azaroaren 20an ikusi nuen, goizeko zortziak eta hamar inguruan, trapu beltzarekin zegoela. Oihuka eta ateari ostikoka hasi nintzen, Franco hil zela esaten. Preso guztiak hasi ginen gauza bera egiten. Kartzelan izan genuen askatasun egunik handiena izan zen... Francorekin diktaduraren parte bat ere joan zen, baina egia da Francoren garaiko militar, epaile eta politikari askok beren postuetan jarraitu zutela. Transizio bat egon zen eta, apurketa-rik egon ez zenez, demokraziarik ondoren izan dituen mugak aipatutako sektore horietatik sortu dira batez ere. Dena barkatu zitzaizen. Hainbeste hilketa, hainbeste jazarpen gauzatu zuten haietaz zitzaizen ezertxo ere eskatu. Ez zituzten epaitu. Francok hautatu zuen gaur egungo Espainiako estaturburua, gainera: Juan Carlos Borboikoa. Eta Franco hiltzean herrien autodeterminazio eskubidea gauzatea lortuko genuela uste genuen, baina oraindik ez dugu lortu, zorritzarrez. Gauza batzuk lortu dira, hala ere, eta Francoren garaiketa oraindik ez da berdinak, gure demokraziak murrizketak badituen arren.

Ibon Sarasola

HIZKUNTZALARIA

«Esperantzari leiho bat ireki zitzaion»

Gure bizitza osoa hartzen zuten harlauza ikaragarri bat desagertzea izan zen Franco hiltzea, eta esperantzari leiho bat irekitzea. Bartzelonan nongoen. Lagun batek esnatu ninduen berria emateko, eta Curial argialetxearean joan ginen. Txanpain botila bat edanez ospatu genuen berria. Oso garai berezia izan zen hura, edozer gauza gerta zitekeen. Esperantza hori, beti bezala, zapuztu egin zen gero. Ordurarte pentsaezinak ziren gauzak gertatzen hasi ziren. Gogoan dut Kataluniako Alderdi Sozialistaren mitin bat—PSOErekin batu gabe zegoen artean—, kirolegi batean, jendez egin zen gero. Ordurarte pentsaezinak ziren gauzak gertatzen, ordurarte ez bezala. Gogoan daukat Koldo Mitxelena esaten zuela: «Kontuz militarrekin!». Nik, nire artean, «txorakeriak» pentsatzen nuen, eta begira zer txorakeriak, gero etorri ziren sable hotsak ezagututakoan. Euskal Herrira ere etortzen nintzen tarteka, eta giroa oso diferentea zen hemengo Bartzelonakoaren aldean. Gurasoen Donostriako etxe parean egunero zegoen barrikadaren bat, eta hemen asko luzatu zen giro hori, baina hori beste historia bat da. Aznarrek boterea gaildu zuenean ere lasaitasun sentimendu bat sentitu nuen. Dena dela, gaurkoa duela 30 urte artekoen alderatuta, bada alde oraindik ere, Francorena diktadura ikaragarria izan zelako.

Ander Iturriotz

SOZIOLOGOA

«Duela 30 urte gutxiegi exijitu zela ematen du»

Francok hil zenean transizio uestez eredugarri bat egin zuten, eta, esaten denez, transizio hura Espainiako Armadari atera ahal zitzaion gehiena aterata egin zen. 30 urte geroago ikusita, baina, ematen du gutxiegi exijitu zela. Batez ere, erakunde eta aparatua frankista guztiak garbitu gabe gertatu zirelako. Espainiako Armadaren—eta horren barruan Guardia Zibila—eta Elizaren hierarkia, adibidez, ez ziren garbitu, eta bi botere horiek berriz ari dira politikaren lehen lerroan ateratzen. Frankismoa ezkutatu egin zen duela 30 urte. Eta orain, soziologikoki, Espainia eskuinaren esku ari da gertatzen. Ezin da esan frankismoarekin jarraitzen dugunik, baina Espainian eskuinak bere egin ditu frankismoak landatutako haziak. Francoren eta frankismoaren historia ez zen idatzi, debekatuta zegoelako. Gaur egun, horren ondorioz, historia eskuin frankistaren interesekin lotzen ari da. Frankismoaren azken garaietan hain burhurria zen egoera hura, azkenean, masa demokratikoa bihurtu dute, eta masa demokratizetan hedabideen eta propaganda sinbolikoaren morroi da hirritarra. Espainia maila intelektual eta politiko horretan bizi da, eta, bigarren transizio batean sartzen ez bada, PPKo eskuin muturrak PSOE mapatik ezabatuko du.